<table>
<tr><td colspan="2" align="center"><u>OSOKO BILKURA BEREZIA</u> / <u>PLENO EXTRAORDINARIO</u><br><br><u>2022EKO MAIATZAREN 3A</u> / <u>3 DE MAYO DE 2022</u></td></tr>
<tr><td colspan="2" align="center">BERTARATUAK / ASISTENTES</td></tr>
<tr><td align="center"><u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u><br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna<br><br><u>KONTU-HARTZAILEA / INTERVENTOR</u><br><br>D. Xabier Andrés Cambronero jauna</td>
<td><u>ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE</u><br><br>D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).<br><br><u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u><br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Ander Curiel Ayuso jauna PSE-EE (PSOE).<br><br><u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u><br><br>Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>Dña. Miren Baranguan Yarza (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK).</td></tr>
</table>

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20220503&instante=0

**Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, 2022ko maiatzaren 3an, goizeko hamaikak izanik, Udalbatza bildu zen bilkura berezian**, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Ibañez Anuncibay eta Lamarain Cobo andreek eta Pérez Illana jaunak beren ezin etorria justifikatu dute.

**En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial a las once horas del día 3 de mayo de 2022, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal**, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados; habiendo justificado su ausencia las Sraas. Ibañez Anuncibay, Lamarain Cobo y el Sr. Pérez Illana.

**Alkate-Udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta aztertu da

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**1. 2022ko Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien aurreneko espedientea.**

**1. Primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal 2022.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 17 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (4), EH Bildu (4).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 1 - Elkarrekin Eibar-Podemos.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 17 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (4), EH Bildu (4),

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 1 - Elkarrekin Eibar-Podemos.

2022. jardunaldiko Udal Aurrekontuko partidetan izendatutako kredituak urriak

Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes

direnez, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2022, se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Udal Aurrekontuaren kreditu gehigarrien aurreneko espedientearen inguruan alkateak egin duen proposamena, eta espediente horren inguruan kontu-hartzaileak egindako txostena ikusita.

Vistos la propuesta de Alcaldía sobre el primer expediente de créditos adicionales del Presupuesto Municipal y el informe del Interventor sobre el expediente.

Kontuan hartuta Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordearen aldeko irizpena, 2022ko apirilaren 26koa.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimoniode, 26 de abril de 2022.

Ondorioz, Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

En consecuencia, el Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**AKORDIOA**

**LEHENA.-** Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien Aurreneko espedientea onartzea, honako zenbateko hauek dituena:

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Aprobar el primer expediente de créditos adicionales del presupuesto municipal cifrado en las siguientes cantidades:

**LABURPENA KAPITULUKA**

**RESUMEN POR CAPITULOS**

**I. FUNTSEN JATORRIA**

**I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS**

Kap Izendapena Euroak

Capít Denominación Euros

8. Finantza aktiboak 2.976.071,60

GUZTIRA, igoerak adina 2.976.071,60

**II. KREDITUEN GEHIKUNTZA**

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2. | Gastuak ondasun arruntak | 501.071,60 |
| 6. | Inbertsio errealak | 2.475.000,00 |

GUZTIRA, kreditu-gehikuntza 2.976.071,60

**BIGARRENA.-** Kreditu gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendaurrean jartzeko.

**2. Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzeko proposamena eta dirulaguntza izendunen eranskina aldatzeko proposamena. (Emakumezko Errugbiko Erreginaren Koparen antolaketa eta “Basque Country International Women´s Cup 2021” Nazioarteko Txapelketa antolatzea).**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

8. Activos financieros 2.976.071,60

TOTAL igual a los aumentos 2.976.071,60

**II. CREDITOS EN AUMENTO**

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2. | Gastos en Bienes Corrientes | 501.071,60 |
| 6. | Inversiones reales | 2.475.000,00 |

TOTAL Créditos en aumento 2.976.071,60

**SEGUNDO.-** Asimismo, el presente expediente de créditos adicionales deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.

**2. Propuesta de modificación del anexo del plan estratégico de subvenciones y de modificación del anexo de subvenciones nominativas. (Organización de la Copa de la Reina de Rugby Femenino y Organización del Torneo Internacional “Basque Country International Women´s Cup 2021).**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

ALDEKO BOTOAK: 18 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (4), EH Bildu (4) , Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

Ikusita Alkatetzak egindako proposamena, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta 2022. urterako onetsitako dirulaguntza izendunen Eranskina aldatzeko.

Kontuan hartuta Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordearen aldeko irizpena, 2022ko apirilaren 26koa.

Ondorioz, Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

**AKORDIOA**

**LEHENA.-** 2022.urteko aurrekontuko dirulaguntza izendunen eranskinean eta dirulaguntzen Plan Estrategikoan honako dirulaguntza lerro hauek sartzea:

DIRULAGUNTZA LERROA: Emakumezkoen Errugbiko Erreginaren Kopa antolatzea
ONURADUNA: EIBAR RUGBY TALDEA

VOTOS A FAVOR: 18 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (4), EH Bildu (4), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Vistas la propuesta de Alcaldía para modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones y la modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas, aprobados para el año 2022.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimoniode 26 de abril de 2022.

En consecuencia, el Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Incorporar al Plan Estratégico de Subvenciones y al Anexo de subvenciones nominativas del presupuesto del año 2022 las siguientes líneas de subvención:

LINEA DE SUBVENCIÓN: Organización de la Copa de la Reina de Rugby Femenino.
BENEFICIARIO: EIBAR RUGBY TALDEA

HELBURUA: Emakumezkoen errugbia sustatzea, herrian izen eta ospe handiko txapelketa bat antolatuz.
URTEKO KOSTUA: 10.000 euro
FUNTZIONALA: 341.00
DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA: dirulaguntza izenduna.

OBJETO: Fomentar la práctica del rugby femenino. Para ello organizar un campeonato de prestigio en la ciudad.
COSTE ANUAL: 10.000 euros
FUNCIONAL 341.00
PROCEDIMIENTO DE LA CONCESIÓN: Tipo subvención nominativa

DIRULAGUNTZA LERROA: “Basque Country International Women´s Cup 2021” Nazioarteko Txapelketa antolatzea.
ONURADUNA: EIBAR ESKUBALOI TALDEA
HELBURUA: Emakumezkoen eskubaloia sustatzea, herrian izen eta ospe handiko txapelketa bat antolatuz.
URTEKO KOSTUA: 12.783,75 euro
FUNTZIONALA: 341.00
DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA: dirulaguntza izenduna.

LINEA DE SUBVENCIÓN: Organización del Torneo Internacional “Basque Country International Women´s Cup 2021”
BENEFICIARIO: EIBAR ESKUBALOI TALDEA
OBJETO: Fomentar la práctica del balonmano femenino. Para ello organizar un campeonato de prestigio en la ciudad.
COSTE ANUAL: 12.783,75 euros
FUNCIONAL 341.00
PROCEDIMIENTO DE LA CONCESIÓN: Tipo subvención nominativa

**BIGARRENA.-** Espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara, jendaurrean jartzeko.

**SEGUNDO.-** Asimismo el presente expediente, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.

**3. San Andrés Fundazio Publikoko lanpostuen balorazioa**

**3. Valoración de puestos de la Fundación Pública San Andrés**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

ALDEKO BOTOAK: 18 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (4), EH Bildu (4) , Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

Aztertu egin da San Andrés Fundazio Publikoa udal erakunde autonomoko Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamena.

Irizten da lanpostuen bidezko balorazio egin dela eta gehikuntza justifikatuta dagoela honako faktore hauekin:

Lanpostu-mailako osagarria.

- Erantzukizun funtzionala besteen lanagatik.
- Erantzukizuna aginteagatik edo hierarkiagatik.
- Erantzukizuna harremanengatik.
- Gaitasuna eta espezializazioa, formakuntza.
- Autonomia.

Berariazko osagarria:

- Zailtasun tekniko berezia edo ekimena.
- Erantzukizuna funtzioagatik.
- Lan-, arriskugarritasun-, nekagarritasun-baldintzak.

VOTOS A FAVOR: 18 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (4), EH Bildu (4), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Examinada la propuesta de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo del organismo autónomo municipal Fundación San Andrés.

Considerando que se ha realizado la oportuna valoración de los diferentes puestos de trabajo y que el incremento está justificado en los siguientes factores:

Complemento Destino:

- Responsabilidad funcional por el trabajo de otros/as.
- Responsabilidad por mando o jerárquica.
- Responsabilidad por las relaciones.
- Competencia y especialización formación.
- Autonomía.

Complemento Específico:

- Su especial dificultad técnica o iniciativa.
- Responsabilidad por la función.
- Condiciones de trabajo, peligrosidad, penosidad.

- Ordutegi-nekagarritasuna.
- Dedikazioa, disponibilitatea, bateraezintasuna.

Aipatutako aldaketa ezin da atzeratu hurrengo ekitaldira arte; izan ere, pertsonala Kabia foru-entitate autonomora transferitua izan zen, 2020ko urtarrilaren 1eko ondorioekin.

Lanpostuen Zerrendaren aldaketa horren ondorio ekonomikoek atzeraeragina izango dute 2019ko otsailaren 21etik abenduaren 31ra arte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Administrazio onaren printzipioak eskatzen du erakundea etengabe egokitzea gertatutako aldaketetara, halako moldez non erakundeak atzetik duen errealitate ekonomikoaren eta antolamenduaren irudi fidela emango duen.

Lanpostuen Zerrenda aldatzeak ezin du ekarri ordainsari osagarrien igoera orokorra, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 3.Bi artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, 2019ko aurrekontu-ekitaldian aplikatu beharreko arau gisa.

- Penosidad horaria.
- Dedicación, disponibilidad, incompatibilidad.

Resultando que la aprobación de la citada modificación no puede demorarse hasta el próximo ejercicio, puesto que el personal fue transferido al organismo autónomo foral Kabia, con efectos de 1 de enero de 2020.

Resultando que los efectos económicos de la citada modificación de la Relación de Puestos de Trabajo tendrá efectos retroactivos desde el 21 de febrero hasta el 31 de diciembre de 2019, de acuerdo con lo previsto en el artículo 39.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Resultando que el principio de buena administración exige una adaptación continua de la organización a los cambios producidos de forma que la misma reproduzca una imagen fiel de la realidad económica y organizativa subyacente.

Considerando que la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo no puede suponer aumento global de las retribuciones complementarias, de conformidad con lo previsto en el artículo 3.Dos del Real Decreto Ley 24/2018, de 21 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público, como norma aplicable en el ejercicio presupuestario 2019.

Kontuan hartzen da, halaber, 3. artikuluaren Zazpi idatz-zatiak aurreikusten duenaren arabera muga hori ezin dela eragozpen edo oztopo gisa ulertu lanpostuen edukiagatik, bereziki eta salbuespenez, ezinbestekoak diren ordainsari-egokitzapenak egiteko.

Considerando, asimismo, que el apartado Siete del mismo art. 3 prevé que dicha limitación debe entenderse sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo.

San Andres Fundazio Publikoa udal erakunde autonomoaren Lanpostuen Zerrenda eta, ondorioz, haren aldaketak onartzea Udalbatzari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta eskumen hori ezin da eskuordetu.

Considerando que la aprobación de la Relación de Puestos de Trabajo del organismo autónomo municipal Fundación Pública San Andrés y, consecuentemente, de sus modificaciones corresponde al Ayuntamiento Pleno, en virtud de lo previsto en el artículo 22.2.i) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, sin que tal atribución pueda ser objeto de delegación.

Kontuan hartuta aldaketa-proposamena aldez aurretik negoziatu dela, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 34. eta 37.1.c) artikuluetan xedatutakoa aplikatuta, eta langileak ordezkatzen dituzten sindikatuekin akordioa lortu dela.

Considerando que la propuesta de modificación ha sido objeto de negociación previa, por aplicación de lo dispuesto en los artículos 34 y 37.1.c) del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, habiéndose alcanzado acuerdo con las organizaciones sindicales representantes del personal.

Kontuan hartuta aldaketa-proposamenak ez diola eragiten udal Aurrekontuarekin batera onartutako plantillari.

Considerando que la propuesta de modificación no afecta a la plantilla aprobada junto al Presupuesto municipal.

Ikusita Idazkaritzaren 2021eko irailaren 13ko txostena.

Visto el informe de Secretaría, de 13 de septiembre de 2021.

Ikusita Kontu-hartzailetzaren 2021eko irailaren 24ko txostena.

Visto el informe de Intervención, de 24 de septiembre de 2021.

Kontuan hartuta 2022ko ekitaldirako udal-aurrekontua indarrean sartu zela 2022ko martxoaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (60. zk.) behin betiko onarpena argitaratu ondoren, eta, beraz, aintzat hartuta kreditu egokia eta nahikoa dagoela aldaketa horren ondoriozko betebehar ekonomikoei aurre egiteko.

Considerando que el presupuesto municipal para el ejercicio 2022 entró en vigor, una vez publicada su aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 60, de 29 de marzo de 2022, existiendo, por tanto, crédito adecuado y suficiente para hacer frente a las obligaciones económicas derivadas de dicha modificación.

Ikusita San Andrés Fundazio Publikoa udal-erakunde autonomoaren Batzarreko akordioa, 2022ko apirilaren 12koa.

Visto el acuerdo de la Junta del organismo autónomo municipal Fundación Pública San Andrés, de 12 de abril de 2022.

Kontuan hartuta Pertsonal Lan Batzordearen aldeko irizpena, 2022ko apirilaren 27koa.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Personal, de 27 de abril de 2022.

Ondorioz, Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

En consecuencia, el Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**LEHENA.-** San Andres Fundazio Publikoa udal-erakunde autonomoko lanpostuen balorazioa onartzea, 2019ko otsailaren 21etik abenduaren 31ra arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

**PRIMERO**.- Aprobar la valoración de puestos de trabajo del organismo autónomo municipal Fundación Pública San Andrés, con efectos retroactivos desde el 21 de febrero al 31 de diciembre de 2019.

**BIGARRENA.-** Jarraian zehazten diren lanpostuen Lanpostu-mailako Osagarria eta Berariazko Osagarria handitzea, eta, ondorioz, Lanpostuen Zerrenda aldatzea; honela geratuko litzateke zerrenda:

**SEGUNDO.-** Incrementar el Complemento de Destino y el Complemento Específico de los puestos de trabajo que se detallan a continuación y, en consecuencia, proceder

a la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo, en los siguientes términos:

| Lanpostua: | Lanpostu-mailako osagarria | Berariazko osagarria |
|---|---|---|
| Osasun-laguntzailea | 8 | 837,73 |
| DUE (Erizaintza) | 14 | 734,1 |
| Garbitzailea/gela-zerbitzaria | 6 | 766,37 |
| Harreragilea | 6 | 766,37 |
| Osasun-laguntzaileen eta mantentze-laguntzaileen gainbegiralea | 12 | 1354,30 |
| Osasun-laguntzaileen gainbegiralea | 12 | 1354,30 |
| Garbitzaileen gainbegiralea | 6 | 886,32 |

| PUESTO | COMPLEMENTO DE DESTINO | COMPLEMENTO ESPECÍFICO |
|---|---|---|
| Auxiliar sanitario | 8 | 837,73 |
| DUE (Enfermería) | 14 | 734,1 |
| Limpiador/a-Camarero/a | 6 | 766,37 |
| Recepcionista | 6 | 766,37 |
| Supervisor/a de Auxiliares Sanitarios/as y de Mantenimiento | 12 | 1354,30 |

| | | |
|---|---|---|
| Supervisor/a de Auxiliares Sanitarios/as | 12 | 1354,30 |
| Supervisor/a de Limpiadores/as | 6 | 886,32 |

**HIRUGARRENA.-** Hartzen den erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Udal honetako iragarki-oholean eta webgunean.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hau espediente honetan interesdun gisa agertzen diren pertsona guztiei jakinaraztea, eta bidezkoak diren errekurtsoak adieraztea.

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, eta goizeko hamabiak eta hamar izanik, Alkate-Udalburu jaunak amaiera eman dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Nagusi naizen honek, horren fede emanez.

**TERCERO**.- Publicar el acuerdo que se adopte en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en su sitio web.

**CUARTO.-** Notificar el presente acuerdo a cuantas personas aparezcan como interesadas en el presente expediente, con indicación de los recursos que sean procedentes.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las doce horas diez minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO

Jon Iraola Iriondo

Juan Agustín Villafranca Bellido